

IKT I ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea | Mikel Maza / Xabier Durruti | Maila | LB.1 | Ikasturtea | 2020-2021

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

Hautazko ikasgaia da. Astero 3 saio dituena. Proiektu, ikerketa eta talde lanari garrantzi handia ematen diona.

ONARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2			
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak.		2	3	4	5
3) Gaitasun digitala.		2	3	4	5
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.		2		4	
6) Ekimena eta ekintzailtza.		2	3	4	
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.			3	4	

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

[IKT I CURRICULUMA](#)

1. Informazioaren eta teknologia berrien gizartea. Teknologi berriak eragin dituzten komunikazio aldaketak gure gizartean.
2. Ordenagailuaren osagai fisikoak eta ordenagailuen arteko konexioak, sareak.
3. Erabilera orokorreko programak: irudiak, testuak, aurkezpenak, kalkuluak, bideoak, datu baseak, soinua lantzeko programak.
4. Ordenagailuen sareak.
5. Programazioa.

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae** Berdin Bidean programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[IKT I CURRICULUMA](#)

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
1	1. Aurkezpena	33	3. Aurkezpenak egiten ikasten: - Diseinuarekin erlazionatutako alderdiak - Edukien antolaketa - Lizentziak - Ahozko aurkezpena	15	4. Web orria diseinatzen
30	2. Instalazio informatikoak prestatzen: - Hardware - Software - Sareak			18	5. Scratch Programazioa

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Metodologia.

Ikasleek aktiboki jokatuko dute klaseak aurrera eramateko, ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren protagonista izanen da. Talde lanean eginiko proiektuei garrantzia handia emanen zaio.

- Gehingoetan ariketa eta proiektuen bidez landuko dira gaiak. Proiektu hauetan zenbait gai elkartuko dira.
- Baliteke gai teorikoak landu ondoren galdeketa idatziak egitea gaiari buruz.
- Programa / Aplikazioak: Internet. Internet baliabideak. Google Aplikazioak. Scratch.
- Ordenagailu zaharrak (osagaiak aztertzeke).

Baliabideak.

Arloa garatzeko irakasleak emandako apunteak erabiliko dira, bestetik arloaren garapena laguntzeko Google aplikazioak erabiliko dira. Horiez gain informatika gelako baliabideak erabiliko dira.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Ebaluatzeke orduan tresna hauek erabiliko dira eta kalifikatzeko portzentajeak ondorengoak izanen dira:

- Egindako **ariketak / lanak / proiektuak / frogak: %80**

- Lanerako **jarrera: %20**

*Jarrera desegokiak kentzen dute:

Euskaraz ez hitz egitea	-0,2	Klasean pertsonak bezala ez egotea (tokiz aldatu, hankak mahai gainean,...)	-0,2
Klasera orduan ez etortzea	-0,2	Klasean lanean ez aritzea, beste zereginetan aritzea, ez kooperatzea...	-0,2
Beharrezko materiala ez ekartzea	-0,2	Lanak epean ez aurkeztea (egun bakoitzeko)	-0,5
Gelako materialak eta ordenagailuak ez zaintzea	-0,2	Ikaskide eta irakaslearekiko errespetua ez izatea	-0,5
Gelako arauak ez errespetatzea	-0,2	Mugikorra klasean erabiltzea	-1
Etxeko lanak ez egitea	-0,2	Klasera ez etortzea eta ez justifikatzea	-0,2

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK**Zuzenketa irizpideak.**

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5 - 5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

Azken nota: IKT I ikasgaia gainditzeko, hiru ebaluazioetako noten batezbestekoan 5 edo handiagoa den kalifikazioa lortu beharko da.

Azterketetan kontzeptu teoriko eta hiztegi teknikoak ezagutzen den baloratuko da.

Ariketa eta proiektuen bitartez, informatika tresnen erabilera maila baloratuko da.

IKT I arloan ez da ematen nota hobetzeko aukerarik.

Saioen %20 edo gehiago huts egiten bada, ebaluazio jarraia eskubidea galduko da.

Gutxieneoak:

- Hardwarea: Ordenagailua osatzen duten elementu garrantzitsuenak identifikatu
- Sistema eragileak: Sistema eragilearen oinarrizko agindua eta konfigurazioak ezagutu.
- Sareak: Sare lokalen baliabideak erabiltzen jakitea.
- IKT-ak eta gizartea: Informazioaren teknologiek egungo gizartean dituzten eraginetako batzuk ezagutu eta baloratzea.
- Testu prozesadorea, kalkulu orria, datu basea eta pakete grafikoak: Baliabide informatikoak erabiliz dokumentu inprimatuak prestatu beharko dituzte, formatu zehatz batera egokituta. Helburu orokorreko programetako (testu prozesadorea, kalkulu orria, datu basea eta pakete grafikoak) tresna garrantzitsuenak erabiltzen jakin beharko dituzte, curriculumaren arlo ezberdinetarako laguntza gisa. Datu base berri bat diseinatzen jakitea eta honi informazio kontsultak egin.
- Lengoaia informatikoak: Ordenagailuz lagundutako diseinu programa baten oinarrizko funtzioak aplikatzen jakin.
- Talde lanean modu sistematiko eta ordenatuan aritzea.
- Ikerketa prozesuan trebatzea.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ebaluazio batean suspentsioa bada, suspenditutako unitateak berreskuratu behar dira, hurrengo ebaluazioaren lehenengo egunetan, data adostuta. Behin berreskuratua, nota beheko taulan agertzen den moduan finkatuko da.

Ohiko deialdian, gainditu gabeko ebaluazioak berreskuratu behar dira. Berreskurapena suspentsioaren arabera izanen da, pertsonalizatua. Behin berreskuratuta, beheko taulan agertzen den moduan, lortutako nota berri honekin (hauekin) hiru ebaluazioen noten batezbestekoa eginez, kalkulatu da azken nota.

Ez Ohiko deialdian, ikasleren batek hiru ebaluazioen batezbestekoan ez badu 5 edo gehiago lortzen, suspendituriko ebaluazioak berreskuratu beharko ditu. Berreskurapena suspentsioaren arabera izanen da, pertsonalizatua. Behin berreskuratuta, beheko taulan agertzen den

moduan, lortutako nota berri honekin (hauekin) hiru ebaluazioen noten batezbestekoa eginez, kalkulatu da azken nota.

Berreskurapenaren emaitza	Azken emaitza
8.5 - 10	7
7 - 8.5	6
5 - 7	5
0 - 5	Berreskurapenaren emaitza borobildua (4 eta 5 artean, 4)

KANPOKO EBALUAZIOA

IKT I irakasgaiaren ez da kanpoko ebaluaziorik egiten.

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.

Iruñea, 2020ko iraila